

**MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZAREN  
EBALUAZIO-PROTOKOLOA  
DOCENTIA PROGRAMA**

*2020ko otsailaren 19a*

## 1. SARRERA

### 1.1 TESTUINGURUA

DOCENTIA, unibertsitateko irakasleen irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko laguntza-programa, Europako unibertsitateen artean kalitatea, mugikortasuna, aniztasuna eta lehiakortasuna sustatuko dituen agertokia eraikitza bideratutako ekimenetako bat da, Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparrua sortzeko bidean.

DOCENTIA programak, lehenik eta behin, goi-mailako hezkuntza-ereduen kalitatea bermatzeko gomendioak hartzen ditu erreferentziatzat. Gomendio horiek *European Association for Quality Assurance in Higher Education (ENQA)* erakundeak eginak dira, **Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparruan kalitatea bermatzeko irizpideak eta gidalerroak** izeneko dokumentuan.

Irizpide eta gidalerro horien artean, azpimarratzekoa da **1.5. Irakasleak** izenburukoa. Horren arabera, hezkuntza-erakundeek baliabide egokiak eskuratu behar dituzte beren irakasleek kualifikazio egokia dutela bermatzeko, bai eta prozesu garden eta bidezkoak erabili ere irakasle horien kontratazioetan eta garapen profesionalean.

### 1.2. DOCENTIA PROGRAMAREN INTEGRAZIOA BESTE EBALUAZIO- ETA EGIAZTATZE-PROGRAMA BATZUEKIN

Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak garatutako egiaztatze-programa instituzionaletako bat da DOCENTIA. Honako beste egiaztatze-programa hauekin bat dihardu:

IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN (PII) EBALUAZIOA	INTEGRAZIOA DOCENTIAREKIN
<ul style="list-style-type: none"> <li>o <u>EGIAZTAPENA</u></li> </ul>	UNIBERTSITATE PRIBATUKO IRAKASLEAK egiaztatzeko, 100 puntutik 60 lortu behar dira honako arlo hauetan: 3. arloan: <i>Irakaskuntza-jarduera eta esperientzia profesionala (30 puntu gehienez eta 20 puntu gutxienez), iii) atalean: Irakaskuntza-kalitatea egiaztatzea, 10 puntu gehienez. 5 urteko DOCENTIA aldeko ebaluazioaren bidez lortuko da gehieneko puntuazioa.</i>
TITULAZIOEN EBALUAZIOA	INTEGRAZIOA DOCENTIAREKIN
<ul style="list-style-type: none"> <li>o <u>JARRAIPENA</u></li> </ul>	PERTSONAL AKADEMIKOA: Ebaluazioa egiteko oinarrizko informazioa? <b>Egokia al da irakaskuntza-egiaztapena duten irakasleen kopurua (DOCENTIA)?</b>  JARRAIPEN-ADIERAZLEAK: <i>Irakaskuntza-egiaztapena duten irakasleen kopurua (DOCENTIA)</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>o <u>EGIAZTAPENA BERRITZEA</u></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 3. IRIZPIDEA. KALITATEA ZIURTATZEKO BARNE-SISTEMA. 3.3. gidalerroa: <i>Ezarritako KBBSak hainbat prozedura ditu irakatsi eta ikasteko prozesuaren kalitatea ebaluatu eta hobetzeko. Analisiaren oinarrizko informazioa: <b>Pertsonal</b></i></li> </ul>

	<p><b>akademikoa ebaluatzeko prozesuen emaitzak. DOCENTIA programa edo antzekoak (aintzat hartutako epealdia-ikastetxea).</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 4. IRIZPIDEA. PERTSONAL AKADEMIKOA. 4.1. gidalerroa. <i>Tituluko pertsonal akademikoak titulurako kualifikazio akademikoaren maila betetzen du eta irakasteko eta ikertzeko esperientzia eta kalitate egokia du.</i> Analisiaren oinarritzko informazioa: <b>Pertsonal akademikoa ebaluatzeko prozesuen emaitzak. DOCENTIA programa edo antzekoak (aintzat hartutako epealdia-ikastetxea).</b></li> <li>• 4. IRIZPIDEA. PERTSONAL AKADEMIKOA. 4.2. gidalerroa. <i>Pertsonal akademikoa nahikoa da eta bere funtzioak betetzeko eta ikasleei arreta emateko ardura egokia du.</i> Analisiaren oinarritzko informazioa: <b>Pertsonal akademikoa ebaluatzeko prozesuen emaitzak. DOCENTIA programa edo antzekoak (aintzat hartutako epealdia-ikastetxea).</b></li> <li>• 4. IRIZPIDEA. PERTSONAL AKADEMIKOA. 4.3. gidalerroa. <i>Irakasleak eguneratu egiten dira, irakatsi eta ikasteko prozesuari behar bezala heldu ahal izateko, tituluaren ezaugarriak kontuan hartuta.</i> Analisiaren oinarritzko informazioa: <b>Pertsonal akademikoa ebaluatzeko prozesuen emaitzak. DOCENTIA programa edo antzekoak (aintzat hartutako epealdia-ikastetxea).</b></li> <li>• JARRAIPENEAN ZEHAR EMANDAKO ADIERAZLEAK: <i>Egiaztapena duten irakasleen kopurua (DOCENTIA).</i></li> </ul>
<p><b>EBALUAZIO INSTITUZIONALA</b></p>	<p><b>INTEGRAZIOA DOCENTIAREKIN</b></p>
<p>○ <u>AUDIT</u></p>	<p>1.3. <i>Pertsonal akademikoaren eta irakaskuntzan laguntzeko pertsonalaren kalitatea bermatu eta hobetzea.</i> Analisiaren oinarritzko informazioa: <b>Pertsonal akademikoaren eta irakaskuntzan laguntzeko pertsonalaren ebaluazioa, sustapena eta aitortza.</b></p>

## 2. IRAKASKUNTZAREN EBALUAZIOAREN OINARRIA ETA HELBURUAK

### 2.1. 2.2. IRAKASKUNTZAREN EBALUAZIOAREN HELBURUAK

---

#### HELBURU OROKORRAK

Irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko DOCENTIA programak honako helburu hauek ditu:

- Irakaskuntzaren kalitatea hobetzen laguntzea.
- Interes-taldeak (ikasleak, enpresak/erakundeak, administrazioak) orientatzea.
- Irakaskuntza berritzen eta MUren hezkuntza-eredua ezartzen laguntzea.
- Irakaskuntza-jarduerak etengabe hobetzea.
- Irakaskuntza-jardueraren aitortza sustatzea.
- MUko irakasleen garapen pertsonala eta profesionala bultzatzea.
- Sustapen profesionala bultzatzea.
- Ordainsaria zehazten laguntzea, finkatuta dauden indize profesionalen arabera.

#### HELBURU ZEHATZAK

DOCENTIA programak proposatzen duen sistemak honako helburu zehatz hauek ditu:

- PIIek euren irakaskuntza-jarduerari buruzko gogoeta egin dezaten sustatzea.
- Programak etengabe eguneratzea, ikasleen prestakuntza-premietara egokitzeko.
- Irakatsi eta ikasteko prozesuen berrikuntza pedagogikoa sustatzea.
- Talde-lanaren bidez, MUK eskaintzen dituen jardueren eta zerbitzuen kalitatea hobetzea.
- Ekintzailtza eta ardurak sustatzea irakaskuntza-arloan.

### 2.2. IRAKASKUNTZAREN EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

---

Irakaskuntzaren ebaluazioak ondorio hauek dakartza:

- PIIen profil eta kalifikazio profesionalak orientatu eta garatzea.
- Pertsonen ordainsari-indizea berrikusten laguntzea.
- Irakaskuntza-alorreko jardunbide egokiak identifikatzea.
- Hobekuntza-planak egin eta ezartzea (prestakuntza-ekintza pertsonalizatuaren bidez, eskuarki).

### 2.3. IRAKASKUNTZA EBALUATZEKO MAIZTASUNA

---

DOCENTIA programaren esparruan gauzatzen den irakaskuntzaren ebaluazioa **BOST urtean behin egiten da, eta 2 ebaluazio-fase biltzen ditu**, bakoitza asmo zehatz batekin:

- **Irakaskuntza-jarduera etengabe hobetzera bideratutako urteko ebaluazioa.** Honako alderdi hauekin lotzen da batez ere: *plangintza eta kudeaketa, irakaskuntzaren garapena eta ikasturteko ikaskuntzaren emaitzak* (irakaslearen autoebaluazioa eta ikasleei egindako inkesta).
- **Irakasleen aitortzari, sustapenari eta ordainsariari buruzko bost urtean behingo ebaluazioa.** Bi urtean behin egiten da. Pertsonalaren indizea eta eskala profesionala berrikustea du helburu.

Urtean behin, **BOST URTEKO** aldiaren irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko deialdia egingo da.

#### **2.4. PROGRAMAREN IZAERA**

---

MUren DOCENTIA programa **NAHITAEZKOA** da eta, beraz, MUko irakasle guztiakin erabili beharrekoa.

#### **2.5. PROGRAMAREN IRISMENA ETA APLIKAZIO-EREMUA**

---

MUko hiru fakultateetako eta Eskolako barne-irakasle guztiak hartuko dute parte DOCENTIA programan: irakasle titularrek, irakasle laguntzaileek eta irakasle kolaboratzaileek.

Honako baldintza hauek bete behar dira parte hartzeko:

- Aktiboan edo eszedentzian egotea eta gutxienez 5 urteko lotura izatea MUko hiru fakultateetako batekin edo Eskolarekin.
- Gutxienez urteko 3 ECTSko irakaskuntza-karga edukitzea ebaluazio-aldian zehar, graduko, masterreko eta doktoregoko irakaskuntza ofizialetan; ebaluatutako aldian guztira 30 ECTSra iritsi beharko da. Aldiak etenkakoak izan daitezke.

#### **2.6. IRAKASKUNTZA EBALUATZEKO PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK**

---

Hona prozesuan parte hartzen duten eragileak:

- o Ikasleak: Irakatsi eta ikasteko prozesuaren subjektu aktiboak eta protagonistak dira. Irakaskuntza-jarduera eta prozesuak etengabe hobetzen laguntzen dute, beren pertzepzioen bidez edo inkestetan emandako erantzunen balorazioaren bidez.
- o Irakasleak: Ikasleen ikaskuntza-prozesua ahalbidetzen dute, eta irakatsi eta ikasteko prozesu orokorraren inguruko gogoeta ez ezik, beren jardueraren ebaluazio-alderdiei buruzko autogogoeta ere egiten dute.
- o Departamentuko arduradunak: Pllen garapenaren jarraipena egiteaz eta bideratzeaz arduratzen dira. Irakasleekiko hurbiltasunari esker, eskuz esku ezagutzen dute haien garapen profesionala, eta beraiek arduratzen dira irakasleen ebaluazioa, ordainsaria eta sustapena baloratzeko proposamena egiteaz, jardueraren ebaluazioaren esparruan.

- o Koordinatzaile akademikoak: Jarduera akademikoaren ikuspegi orokorra dute eta, titulu-koordinatzaileen eta gainerako irakasleen bidez, irakasle bakoitzaren jardueraren berri dute, irakaskuntza-jardueraren alderdirik operatiboenean. Ez dira irakasleen ebaluazioa egiteko arduradun zuzenak, baina beren ikuspuntua ematen dute departamentuko arduradunen jardueraren orientaziorik estrategikoenari buruz. Eskolako/Fakultateko zuzendaria/dekanoa: Haren ardurapean dago ikastetxeko irakasleen ordainsari eta sustapenen balorazio-proposamenak adostea eta Kontseilu Errektoreari proposatzea, onar ditzan. Era berean, ebaluazioaren ondorioz sor litezkeen erreklamazioei erantzuna emateko arduraduna da.
- o Fakultateko DOCENTIA Ebaluazio Batzordea: Fakultateko koordinazio orokorreko organoetako kideek hartzen dute parte Batzordean. Irakaslearen irakaskuntza-jarduera ebaluatzeaz arduratzen den organoa da eta DOCENTIA ebaluazioaren azken txostena egiten du.
- o MUko DOCENTIA Programa Koordinatzeko Batzordea: MUko errektoreorde akademikoak, Eskolako/Fakultateetako zuzendariak/dekanoek, MUko idazkari nagusiak eta fakultate bakoitzeko departamentu-koordinatzaileek osatzen dute. Unibertsitate-mailan programaren kudeaketa administratiboaz arduratzen den organoa da. Haren esku daude ebaluazioaren diseinua, segimendua eta egiaztapena. Batzordearen lana da ebaluazio-prozesuaren jarraipena egitea eta irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko programaren egiaztapen-irizpideak betetzen diren aztertzea.

### 3. EBALUAZIO-EREDUA

Irakaskuntza-jardueraren ebaluazioa unibertsitateak egiten duen irakasleen barne-ebaluaziotzat jotzen da, eta irakaskuntza-helburuak betetzen direla bermatzea du helburu. MUK honako **dimentsio** hauek hartzen ditu kontuan **irakasleen irakaskuntza-jardueraren** ebaluazioa egiteko:

- o **I. DIMENTSIONA: TALDE-LANA ETA LIDERGOA**
- o **II. DIMENTSIONA: PLANGINTZA ETA KUDEAKETA**
- o **III. DIMENTSIONA: IRAKASKUNTZAREN GARAPENA**
- o **IV. DIMENTSIONA: IKASKUNTZAREN EMAITZAK**
- o **V. DIMENTSIONA: IRAKASKUNTZAREN HOBEKUNTZA ETA BERRIKUNTZA**

#### 3.1. 3.2. EBALUAZIOAREN DIMENTSIONA, ADIERAZLE, ERREFERENTE ETA IRIZPIDEEN BALORAZIOA

---

MUren DOCENTIA ebaluazio-ereduak **dimentsioen eta elementuen ebaluazio kuantitatiboa eta kualitatiboa** egiten du, azpielementuak baloratuz. Ebaluazioa egiteko, ebaluatutako errealitatetik ateratako datu eta ebidentziei buruz hausnartu, behatu, kontrastatu eta iritziak ematen dira, eta, hein txikiago batean, adierazleen zenbakizko neurketak ere egiten dira.

##### Balorazio-eskala

Hona hemen ebaluazio-irizpideen balorazio-eskala:

- o Ez dago ebidentziarik (0)
- o Hobetu egin daiteke (1)
- o Ondo (2)
- o Nabarmen (3)
- o Bikain (4)

Eskala horretako kalifikazioak bat datoz txostenetan egiten diren balorazioekin, eta parametro hauen arabera baloratzen dira:

- Egiteko maiztasuna.
- Gogobetetasunaren edo egokitasunaren maila edo irismena.
- Nabarmentasuna edo zailtasun-maila.
- Ezartze- edo betetze-maila.

Parametro eta irizpide horiek oinarri hartuta, dimentsio eta elementuen ebaluazioa egiteko errubrika bat osatu da. (I. ERANSKINA)

Pertsonen ebaluazioak osagai subjektibo handia du beti. Ebaluazio-sistema honetan, subjektibotasun hori murrizteko handitu egiten dira ebaluazioan parte hartzen duten pertsonen kopurua eta ebaluazio-arduradunak irakaslearekin duen hurbiltasuna. Horrela, ebaluazioak xede duen informazioaren triangulazioa eta kontrastea sustatzen dira.

Ondoren azalduko ditugu ebaluatutako dimentsioak, elementuak eta azpielementuak, informazio-iturriak eta ebidentziak, eta bakoitza ebaluatzeko adierazleak eta irizpideak.

Ebaluazioan erabiliko diren dimentsio, elementu, irizpide eta adierazleen integrazio-taulan jasotzen dira.



I. TAULA: IRAKASKUNTZA-JARDUERAREN EBALUAZIOAREN DIMENTSIOAK, ELEMENTUAK ETA AZPIELEMENTUAK, INFORMAZIO-ITURRIEN (EBIDENTZIEN), ADIERAZLEEN ETA IRIZPIDEEN HARIRA				
DIMENTSION A	ELEMENTUA	AZPIELEMENTUA	IRIZPIDEAK	ADIERAZLEAK
TALDE-LANA ETA LIDERGOA	1. Pertsonen partaidetza, talde-lidergoa eta motibazioa	1.1.-Talde-lanean parte hartzea	Jarrera Ekimena Garrantzia	<ul style="list-style-type: none"> <li>Talde-lanean ekarpenak egiteko <b>jarrera positiboaren eta eraikitzailearen</b> balorazioa.</li> <li>Erabakiak hartzeko <b>ekimenaren</b> balorazioa.</li> <li>Proiektu berriak bultzatzeko eta erakundearen erronka estrategikoetan parte hartzeko <b>jarrera positiboaren eta eraikitzailearen</b> balorazioa.</li> <li>Hartutako erabakien <b>garrantzia</b>.</li> </ul>
		1.2.- Talde-lidergoa	Gogobetetasuna Ardura-maila Jarrera	<ul style="list-style-type: none"> <li>Taldeko gainerako kideen <b>gogobetetasuna</b> hartutako konpromisoen betetze-mailarekin.</li> <li>Taldeak hartutako konpromisoak betetzeko adierazi den <b>ardura-mailaren</b> balorazioa.</li> <li>Beste pertsona batzuk suspertzeko, ilusionarazteko eta inplikarazteko <b>jarrera positiboaren eta eraikitzailearen</b> balorazioa.</li> <li>Aukerak eta helburuak partekatuzeko <b>jarrera positiboaren eta eraikitzailearen</b> balorazioa.</li> <li>Emaitzekiko eta partekatutako helburuen betetze-mailarekiko <b>gogobetetasuna</b>.</li> </ul>
PLANGINTZA ETA KUDEAKETA	2. Irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren plangintza eta irakaskuntzaren koordinazioa	2.1. Irakaskuntza-jarduera aurreikusitako konpetentzia teknikoekin eta zeharkakoekin lotuta planifikatu eta antolatzea, eta irakaskuntza-kudeaketan parte hartzea	Gogobetetasuna Efizientzia	<ul style="list-style-type: none"> <li>Programatutako jardueren betetze-mailarekin irakasleek duten <b>gogobetetasuna</b>.</li> <li>Irakaskuntza antolatzeako koordinazio-bileren <b>efizientziari</b> buruz irakasleek egiten duten balorazioa.</li> <li>Irakaskuntzaren antolamenduarekin ikasleek duten <b>gogobetetasun-mailaren</b> balorazioa.</li> </ul>
IRAKASKUNTZAREN GARAPENA	3. Irakaskuntzaren garapena eta ikaskuntzaren ebaluazioa	3.1. Ikasleen orientazioa, jarraipena eta tutorizazioa	Gogobetetasuna Irakaskuntza-berrikuntzarako orientazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasleen tutoretzekin ikasleek eta enpresek duten <b>gogobetetasuna</b>.</li> <li>Irakaslearen hurbiltasunarekin eta eskuragarritasunarekin ikasleek duten <b>gogobetetasuna</b>.</li> <li>Ikasleek jarduera berritzaileak hartzeko eta jorrazteko erarekin irakasleek duen <b>gogobetetasuna</b>.</li> <li>Erabilitako metodologiaren <b>irakaskuntza-berrikuntzarako orientazioaren</b> balorazioa.</li> </ul>
		3.2. Irakaskuntza- eta ikaskuntza-jardueren garapena eta ebaluazio-irizpideak ikaskuntzara egokituta egotea	Egokitzapena Gogobetetasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakaskuntza- eta ikaskuntza-jardueretan antzeman den zailtasun-mailaren <b>egokitzapena</b>.</li> <li>Ikasgelan eta ikasgelatik kanpo planteatu diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jardueren <b>egokitzapena</b>.</li> <li>Planteatutako irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerekin ikasleek adierazi duten <b>gogobetetasuna</b>.</li> </ul>

IKASKUNTZAREN EMAITZAK	4. Prestakuntza- helburuen emaitzak	4.1. Ikasleek jasotako prestakuntzarekin adierazi duten gogobetetasuna	Gogobetetasun a	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasleek jasotako prestakuntzarekin adierazi duten <b>gogobetetasuna</b> (balorazio orokorra).</li> </ul>
		4.2. Prestakuntza- helburuen betetze- maila	Egokitzapena Gogobetetasun a	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasleen aurreko ezagutzen eta konpetentzien eta aurreikusitako ikaskuntza-helburuen errendimendu-tasarekiko <b>egokitzapena</b>.</li> <li>Lortutako prestakuntza-helburuen mailarekiko <b>gogobetetasuna</b>.</li> <li>Aurreko ezagutzen eta aurreikusitako ikaskuntza-helburuen harira ikasleek adierazitako <b>gogobetetasuna</b>.</li> </ul>
IRAKASKUNTZAREN HOBEKUNTZA ETA BERRIKUNTZA	5. Irakaskuntza- jarduera berrikusi eta hobetzea: prestakuntza eta berrikuntza	5.1. Irakaskuntza berrikusi eta hobetzea, eta prestakuntza eta berrikuntza pedagogikoko jarduerak egitea	Betetze-maila Gogobetetasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>Prestakuntza-planaren <b>betetze-maila</b>.</li> <li>Ikasleek adierazitako <b>gogobetetasuna</b> egin diren jarduera berritzaileen harira.</li> <li>Arduradun akademikoak adierazitako <b>gogobetetasuna</b> azken ebaluazioan agertutako hobekuntza-ekintzen betetze-mailaren harira.</li> </ul>
		5.2.- Berrikuntza- proiektuetan edo proiektu estrategikoetan parte hartzea	Jarrera Ekimena	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berrikuntza-proiektuetan parte hartzeko <b>jarrera positiboa eta eraikitzailearen</b> balorazioa.</li> <li>Proiektu berritzaileak edo jarduera berriak bultzatzeko <b>ekimenaren</b> balorazioa.</li> </ul>

#### 4. INFORMAZIOA BILTZEKO ITURRIAK ETA PROZEDURAK

Honako informazio-iturri hauek erabiltzen dira MUko irakasleen irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko:

- o *Ikasleei egindako inkestak*: Urtean behin, ikasleek irakasgaiei buruz egiten dituzten inkestak informazioa jasoko du ikastetxeetako idazkaritza akademikoak. (II. ERANSKINA)
- o *Irakaslearen autotxostena*: Urtean behin, irakasleak azken ikasturteko jardueraren autogogoeta egingo du, eta bost urtean behin, autotxosten bat beteko du irakaskuntza-jarduera ebaluatzeari begira. (II. ERANSKINA)
- o *Arduradun akademikoen eta/edo ezagutza-departamentuko/arloko arduradunaren txostena (IV. ERANSKINA)*: Bost urtean behin, arduradun akademikoak txosten bat egingo du irakaskuntza-jardueraren garapena ebaluatzeari begira.
- o *DOCENTIA ebaluazio-txostena*: Bost urtean behin, DOCENTIA Ebaluazio Batzordeak DOCENTIA programaren elementu eta dimentsioen ebaluazioaren emaitza-txostena egingo du.
- o *KBBSen ebidentzia eta erregistroak*: Irakaskuntza-jarduerari eta beste prozesu estrategiko eta lagungarri batzuei buruzko agiriak eta erregistroak izango dituzte arduradun akademikoek eta DOCENTIA Ebaluazio Batzordeak.

II TAULA. EBALUAZIOA EGITEKO INFORMAZIO-ITURRIAK									
DIMENTSIO A	ELEMENTUA	AZPIELEMENTU A	IRIZPIDEAK	Adierazleak	Irakaslearen autotxostena	Arduradun akademikoaren eta/edo ezagutza-departamentuko/arloko arduradunaren txostena	Aurreko ebaluazio-txostenak	Ikasleei egindako inkestak (irakaskuntza eta gradu- eta master-amaierako praktikak eta lanak)	EBALUAZIO-ERREGISTROAK
TALDE-LANA ETA LIDERGOA	1. Pertsonen partaidetza, talde-lidergoa eta motibazioa	1.1.- Talde-lanean parte hartzea	Jarrera Ekimena Garrantzia	<ul style="list-style-type: none"> <li>Talde-lanean ekarpenak egiteko <b>jarrera positiboaren eta eraikitzailearen</b> balorazioa.</li> <li>Erabakiak hartzeko <b>ekimenaren</b> balorazioa.</li> <li>Proiektu berriak bultzatzeko eta erakundearen erronka estrategikoetan parte hartzeko <b>jarrera positiboaren eta eraikitzailearen</b> balorazioa.</li> <li>Hartutako erabakien <b>garrantzia</b>.</li> </ul>	1.1. <i>itema</i>	1.1. <i>itema</i>	1.1. itemaren hobekuntzak		<ul style="list-style-type: none"> <li>Plan Estrategikoaren agiria</li> <li>Kudeaketa Planaren agiria (proiektu estrategikoak)</li> <li>Irakaslearen autotxostena</li> <li>Arduradun akademikoaren eta/edo ezagutza-departamentuko/arloko arduradunaren txostena</li> <li>Azken ebaluazio-prozesuaren txostena</li> </ul>
		1.2.- Talde-lidergoa	Gogobetetasuna Arduramaile Jarrera	<ul style="list-style-type: none"> <li>Taldeko gainerako kideen <b>gogobetetasuna</b> hartutako konpromisoen betetze-mailarekin.</li> <li>Taldeak hartutako konpromisoak betetzeko adierazi den <b>arduramailearen</b> balorazioa.</li> <li>Beste pertsona batzuk suspertzeko, ilusionarazteko eta inplikarazteko <b>jarrera positiboaren eta eraikitzailearen</b> balorazioa.</li> <li>Aukerak eta helburuak partekatzeke <b>jarrera positiboaren eta eraikitzailearen</b> balorazioa.</li> <li>Emaitzekiko eta partekatutako helburuen betetze-mailarekiko <b>gogobetetasuna</b>.</li> </ul>	1.2. <i>itema</i>	1.2. <i>itema</i>	1.2. itemaren hobekuntzak		<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakaslearen autotxostena</li> <li>Azken ebaluazio-prozesuaren txostena</li> <li>Arduradun akademikoaren eta/edo ezagutza-departamentuko/arloko arduradunaren txostena</li> </ul>

PLANGINTZA ETA KUDEAKETA	2. Irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren plangintza eta irakaskuntzaren koordinazioa	2.1. Irakaskuntza-jarduera aurreikusitako konpetentzia teknikoekin eta zeharkakoekin lotuta planifikatu eta antolatzea, eta irakaskuntza-kudeaketan parte hartzea	Gogobete tasuna Efizientzia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Programatutako jardueren betetze-mailarekin irakasleek duten <b>gogobetetasuna</b>.</li> <li>• Irakaskuntza antolatzeko koordinazio-bileren <b>efizientziari</b> buruz irakasleek egiten duten balorazioa.</li> <li>• Irakaskuntzaren antolamenduarekin ikasleek duten <b>gogobetetasun-mailaren</b> ebaluazioa.</li> </ul>	2.1. <i>itema</i>	2.1. <i>itema</i>	2.1. <i>itemaren</i> hobekuntzak	1. <i>itema</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakaskuntza-kargak (ardurak) esleitzeko agiria</li> <li>• Praktiken/proiektuen tutoretza esleitzeko agiria</li> <li>• Irakaslearen autotxostena Jarraipen-bileraren akta (MUP05 prozesua: prestakuntza-prozesuen kalitatearen bermea -&gt; ikasleek irakaskuntzaren antolamenduari buruz egiten duten balorazioa)</li> <li>• Arduradun akademikoen eta/edo ezagutza-departamentuko/arloko arduradunaren txostena</li> <li>• Ikasleei egindako inkestak</li> <li>• Azken ebaluazio-prozesuaren txostena</li> </ul>
IRAKASKUNTZAREN GARAPENA	3. Irakaskuntzaren garapena eta ikaskuntzaren ebaluazioa	3.1. Ikasleen orientazioa, jarraipena eta tutorizazioa	Gogobete tasuna Irakaskuntza - berrikuntzarako orientazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakasleek egindako tutoretzekin ikasleek eta enpresek duten <b>gogobetetasuna</b>.</li> <li>• Irakaslearen hurbiltasunarekin eta eskuragarritasunarekin ikasleek duten <b>gogobetetasuna</b>.</li> <li>• Ikasleek jarduera berritzaileak hartzeko eta jorrazeko erarekin irakasleek duen <b>gogobetetasuna</b>.</li> <li>• Erabilitako metodologiaren <b>irakaskuntza-berrikuntzarako orientazioaren</b> balorazioa.</li> </ul>	3.1. <i>itema</i>	3.1. <i>itema</i>	3.1. <i>itemaren</i> hobekuntzak	2. <i>itema</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleei egindako inkestak</li> <li>• Irakaslearen autotxostena</li> <li>• Arduradun akademikoen eta/edo ezagutza-departamentuko/arloko arduradunaren txostena</li> <li>• Praktiketara dauden ikasleei egindako inkestak</li> <li>• Azken ebaluazio-prozesuaren txostena</li> </ul>
		3.2. Irakaskuntza- eta ikaskuntza-jardueren garapena eta ebaluazio-irizpideak ikaskuntzara egokituta egotea	Egokitzapena Gogobete tasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakaskuntza- eta ikaskuntza-jardueretan antzeman den zailtasun-mailaren <b>egokitzapena</b>.</li> <li>• Ikasgelan eta ikasgelatik kanpo planteatu diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jardueren <b>egokitzapena</b>.</li> <li>• Planteatutako irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerekin ikasleek adierazi duten <b>gogobetetasuna</b>.</li> </ul>	3.2. <i>itema</i>	3.2. <i>itema</i>	3.2. <i>itemaren</i> hobekuntzak	3. eta 5. <i>itemak</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleei egindako inkestak</li> <li>• Irakaslearen autotxostena</li> <li>• Arduradun akademikoen eta/edo ezagutza-departamentuko/arloko arduradunaren txostena</li> <li>• Azken ebaluazio-prozesuaren txostena</li> <li>• Emaitza akademikoen datuak: ebaluazio-tasa</li> </ul>

IKASKUNTZAREN EMAITZAK	4. Prestakuntza-helburuen emaitzak	4.1. Ikasleek jasotako prestakuntzarekin adierazten duten gogobetetasuna	Gogobetetasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasleek jasotako prestakuntzarekin adierazten duten <b>gogobetetasuna</b> (balorazio orokorra).</li> </ul>	4.1. itema	4.1. itema	4.1. itemaren hobekuntzak	6. itema	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasleei egindako inkestak</li> <li>Azken ebaluazio-prozesuaren txostena</li> </ul>
		4.2. Prestakuntza-helburuen betetze-maila	Egokitzapena Gogobetetasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Ikasleen aurreko ezagutzen eta konpetentzien eta aurreikusitako ikaskuntza-helburuen errendimendu-tasarekiko egokitzapena.</b></li> <li>Lortutako prestakuntza-helburuen mailarekiko <b>gogobetetasuna.</b></li> <li>Aurreko ezagutzen eta aurreikusitako ikaskuntza-helburuen harira ikasleek adierazitako <b>gogobetetasuna.</b></li> </ul>	4.2. itema	4.2. itema	4.2. itemaren hobekuntzak	4.2. itemaren parekoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakaslearen autotxostena</li> <li>Arduradun akademikoen eta/edo ezagutza-departamentuko/arloko arduradunaren txostena</li> <li>Ikasleei egindako gogobetetasun-inkestak</li> <li>Emaitza akademikoen datuak: errendimendua</li> </ul>
IRAKASKUNTZAREN HOBEKUNTZA ETA BERRIKUNTZA	5. Irakaskuntza-jarduera berrikusi eta hobetzea: prestakuntza eta berrikuntza	5.1. Irakaskuntza berrikusi eta hobetzea, eta prestakuntza eta berrikuntza pedagogikoko jarduerak egitea	Betetze-maila Gogobetetasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>Prestakuntza-planaren <b>betetze-maila.</b></li> <li>Ikasleek adierazitako <b>gogobetetasuna</b> egin diren jarduera berritzaileen harira.</li> <li>Arduradun akademikoak adierazitako <b>gogobetetasuna</b> azken ebaluazioan agertutako hobekuntza-ekintzen betetze-mailaren harira.</li> </ul>	5.1. itema	5.1. itema	5.1. itemaren hobekuntzak	5.1. itemaren parekoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasleei egindako inkestak</li> <li>Irakaslearen autotxostena</li> <li>Arduradun akademikoen eta/edo ezagutza-departamentuko/arloko arduradunaren txostena</li> <li>Azken ebaluazio-prozesuaren txostena</li> <li>Erreklamazioei eta hobetzeko iradokizunei erantzuteko agiria</li> <li>Prestakuntza-planaren deskargua</li> </ul>
		5.2.- Berrikuntza-proiektuetan edo proiektu estrategikoetan parte hartzea	Jarrera Ekimena	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berrikuntza-proiektuetan parte hartzeko <b>jarrera positiboa eta eraikitzailea.</b></li> <li>Proiektu berritzaileak edo jarduera berriak bultzatzeko <b>ekimenaren</b> balorazioa.</li> </ul>	5.2. itema	5.2. itema	5.2. itemaren hobekuntzak		<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakaslearen autotxostena</li> <li>Arduradun akademikoen eta/edo ezagutza-departamentuko/arloko arduradunaren txostena</li> <li>Azken ebaluazio-prozesuaren txostena</li> <li>Plan Estrategikoaren agiria</li> <li>Kudeaketa Planaren agiria</li> </ul>

## 5. PROZESU OROKORRA ETA ERAGILEAK

### 5.1. EBALUAZIO-PROZESUA

Irakaskuntza ebaluatzeko prozesua BOST urtean behin egiten da eta honako bi fase hauek ditu: urtean behingo ebaluazioa, irakaskuntza-jardueraren etengabeko hobekuntzara bideratua; eta bost urtean behingo ebaluazioa, koefiziente profesionalaren sustapenera eta berrikuspenera bideratua.

Ondoren, ebaluazioaren fase bakoitza deskribatuko dugu:

#### 5.1.1. Irakaskuntza-jarduera hobetzera zuzendutako urteko autogogoeta

Irakaskuntza-jarduera etengabe hobetzera bideratutako urteko ebaluazioa honako dimentsio hauekin lotzen da batez ere: plangintza eta kudeaketa, irakaskuntzaren garapena eta ikasturteko ikaskuntzaren emaitzak (irakaslearen autogogoeta eta ikasleei egindako inkestak).

Autogogoeta egiteko urte akademikoa hartzen da erreferentziazat. Seihileko bakoitzean, MUko graduako eta masterreko ikasleek jasotako prestakuntzarekin duten gogobetetasun-maila neurtzeko galdeketa-orri bat bete behar dute.

MUko graduak eta masterrak ematen dituzten irakasle guztiak ebaluatzen dira emandako irakasgaiaren harira; berdin dio irakasgaia sei hilabetekoa edo ikasturte osokoa izan.

**Ebaluazioaren eragileak:** irakaslea.

**Ebaluazioaren arduraduna:** arduradun akademikoak.

**Emaitza:** irakaslearen autoebaluazioa.

#### 5.1.2. DOCENTIA ebaluazioa (BOST URTEAN BEHIN)

Irakasleen aitortzari, sustapenari eta ordainsariari buruzko bost urtean behingo ebaluazioa. Pertsonalaren indizea eta eskala profesionala berrikustea du helburu.

Ebaluazioa egin aurreko BOST URTEKO irakaskuntza-jarduera hartzen du aintzat DOCENTIA ebaluazioak (bost urte horiek ez dute zertan jarraituak izan). Ebaluatu beharreko irakasgaiak aukeratu ahal izango ditu irakasleak.

**Ebaluazioaren eragileak:** irakaslea, arduradun akademikoak eta/edo ezagutza-departamentuko/arloko arduraduna.

**Ebaluazioaren arduraduna:** Fakultateko DOCENTIA Ebaluazio Batzordea.

**Emaitzak:** azken DOCENTIA txostena (garapen profesionala baloratzeko erabiliko da azken txostena).

### 5.1.3. Deialdia

DOCENTIA ebaluaziorako eskaerak aurkezteko deialdia URTEAN BEHIN egingo da.

## 5.2. EBALUAZIO-BATZORDEAK

Ebaluazio Batzordeen osaera MUren kudeaketa-organoen eta ezagutza-arloen izaera deszentralizatuari eta berezitasunei egokitzen zaie. Ikasleak, irakasleen ordezkariak, kalitate-arduradunak eta gobernu-organotako arduradunak biltzen direnez, bermatuta dago irakaskuntza-jardueraren ebaluazioan zuzeneko partaidetza duten eragileen ikuspegia aintzat hartuko dela. Batzorde batek baino gehiagok hartzen du parte ebaluazio-prozesuan, honako eginkizunekin:

### Eskolako/Fakultateko DOCENTIA Ebaluazio Batzordea:

Batzordeak eginkizun hauek ditu:

- o Irakaskuntza-jardueraren bost urtean behingo balorazioa egitea, txosten honetan zehaztutakoarekin bat.
- o Ebaluazio-prozesuaren jarraipena egitea eta irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko programaren egiaztapen-irizpideak betetzen diren aztertzea.
- o Fakultatean/Eskolan gauzatutako ebaluazio-prozesuaren balorazioa egitea.
- o Fakultateko gidalerroen, elementuen eta azpielementuen koherentzia aztertzea.
- o Ebaluazioaren emaitzei buruzko txostena egitea eta MUko DOCENTIA programaren Koordinazio Batzordeari helaraztea (V. ERANSKINA).

Hona hemen Fakultateko/Eskolako Ebaluazio Batzordearen osaera:

<b>GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA (GZF-BCC)</b>	
Jose M <sup>a</sup> Aizega	Dekanoa eta zuzendari nagusia
Alex Beitia	Koordinatzaile akademikoa
Idoia Calleja	Graduondoko eta etengabeko prestakuntzako koordinatzailea
Cristina Sánchez	Kalitate-koordinatzailea
Gorka Torres	Ikasle kidea
Enrique Fleischmann	Kanpoko kidea

### **GOI ESKOLA POLITEKNIKOA (GEP)**



Carlos García	Koordinatzaile nagusia eta zuzendaria
Xabier Sagarna	Elektronika eta Informatika Departamentuko koordinatzailea
Xabier Arrasate	Mekanikako eta Industria Ekoizpeneko Departamentuko koordinatzailea
Nekane Errasti	Koordinatzaile akademikoa
José Luis Larrabe	Kalitatearen eta Sistemen koordinatzailea
Eskarne Eraña	Idazkaria
Idoia Alvira	Ikasle kidea
Juan M <sup>a</sup> Palencia	Kanpoko kidea

<b>HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA (HUHEZI)</b>	
Begoña Pedrosa	Dekanoa eta zuzendari nagusia
Ainara Artetxe	Hezkuntza Berrikuntzaren Areako koordinatzailea
Eneritz Garro	Hezkuntza Berrikuntzaren Areako koordinatzailea
Goio Arana	Komunikazioaren Areako koordinatzailea
Ainara Udaondo	Lankidetzaren Ikertegiko (LANKI) koordinatzailea
Aitziber Arregi	Koordinatzaile akademikoa eta idazkari akademikoa
Eunate Escandon	Kalitate-arduraduna
Jon Aristi	Idazkaria
Ane Irazabal	Ikasle kidea
Amaia Agirre	Kanpoko kidea

<b>ENPRESAGINTZA FAKULTATEA</b>	
Lander Beloki	Dekanoa eta zuzendari nagusia
Eunate Elio	Pertsonen Garapeneko eta Kudeaketa Ereduko koordinatzailea
Mikel Mesonero	Talentuaren Kudeaketa Negozioko koordinatzaile akademikoa
Aitor Lizarza	Mondragon Team Academy – MTA Negozioko koordinatzaile akademikoa

José Ramón Biain	Idazkaria
Saioa Unamuno	Ikasle kidea
Lander Díaz de Guereñu	Kanpoko kidea

**MUko DOCENTIA Programa Koordinatzeko Batzordea:** Honako hauek ditu partaide:

Irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko esparruan, hauexek dira DPKBren eginkizunak:

- o Fakultateetan gauzatutako ebaluazio-prozesuaren balorazioa egitea.
- o Irakaskuntza-jardueraren ebaluazioaren emaitza globalei buruzko txostena egitea eta interes-taldeei horren berri ematea (V. ERANSKINA).
- o Ebaluazio-prozesuaren jarraipena egitea eta irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko programaren egiaztapen-irizpideak betetzen diren aztertzea.
- o Unibertsitateko gidalerroen, elementuen eta azpielementuen koherentzia aztertzea.
- o Fakultateei programaren berri ematea eta programa horrek beste programa batzuekin duen lotura azaltzea (adibidez, titulazioen egiaztapena berritzeko programarekin).
- o Ebaluazioaren emaitzak argitaratzea, Batzordeak berak erabakitako lekuan eta eran.

<b>MU-KO DOCENTIA PROGRAMA KOORDINATZEKO BATZORDEA</b>	
Jon Altuna	MUko errektoreorde akademikoa
Idoia Peñacoba	MUko idazkari nagusia
Eunate Elio	Enpresagintza Fakultateko Pertsonen Garapeneko koordinatzailea
Ainara Artetxe	Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Pertsonen Garapeneko koordinatzailea
Xabier Sagarna	Goi Eskola Politeknikoko Elektronika eta Informatika Departamentuko koordinatzailea
Alex Beitia	Gastronomia Zientzien Fakultateko koordinatzaile akademikoa
Miren Murgiondo	Goi Eskola Politeknikoko idazkari akademikoa
José Ramón Biain	Enpresagintza Fakultateko idazkari akademikoa
Aitziber Arregi	Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko idazkari akademikoa

Eunate Escandon	Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko kalitate-arduraduna
José Luis Larrabe	Goi Eskola Politeknikoko kalitate-koordinatzailea
Idoia Alvira	Ikasle kidea

## 6. PROTOKOLOA ETA AZKEN EBALUAZIO-TXOSTENA

Hauxe da protokolo horren helburua: irakasleen irakaskuntza-jarduerari buruzko balorazioak egituratu, bideratu eta gardenago egitea, alor horretako jarduketetan sistematizazioa eta irizpide-batasuna bultzatzeko.

### 6.1. EBALUAZIO-PROTOKOLOA

Ebaluatzaileek irakasle baten irakaskuntza-jardueren multzoa baloratzeko erabiltzen dituzten **prozeduren eta gidalerroen multzoa** da ebaluazio-protokoloa.

### 6.2. EBALUAZIO-PROZEDURA

MUko lau fakultateek erakunde-egitura propioa dutenez, elkarren artean bereizia, DOCENTIA programaren dimentsioek, elementuek eta irizpideek **ikastetxe bakoitzeko irakaskuntza-jardueraren ebaluazioaren ikuspegi bateratzailea eta koherentea indartzeko balio dute**, MUren esparru instituzionalaren baitan.

Irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko erabiltzen diren informazio-iturriek (ikasleei egindako inkestak, irakaslearen autotxostenak, arduradun akademikoak egindako txostenak) DOCENTIA programaren azpielementuak, elementuak eta dimentsioak hartzen dituzte aintzat, eta baloratu egiten dituzte.

Ebaluazio-prozesuak honako hauek hartzen ditu:

- 1.- Deialdia argitaratzea (eskuliburua, hautagaiak eta epeak) (VII. ERANSKINA).
- 2.- Interesdunaren eskaera aurkeztea (autotxostena) (VIII. ERANSKINA)
- 3.- Arduradun akademikoen eta/edo ezagutza-departamentuko/arloko arduradunaren ebaluazioa:
  - 3.1. Datuen analisisa eta kontrastea.
  - 3.2.- Ebaluazio-txostena egitea.
- 4.- Interesdunarekin elkarrizketa/jakinarazpena.
- 5.- Fakultateko DOCENTIA Batzordeak irakasle bakoitzaren hasierako DOCENTIA ebaluazio-txostena onartu eta egitea.
- 6.- Interesdunari jakinaraztea.
- 7.- Fakultateko DOCENTIA Batzordearen aurrean erreklamazioak aurkezteko epea ireki eta horiek kudeatzea.
- 8.- Fakultateko DOCENTIA Batzordeak irakasle bakoitzaren behin betiko DOCENTIA ebaluazio-txostena onartu eta egitea.
- 9.- Ebaluazioaren emaitzen txostena egin eta emaitzak MUko DOCENTIA Programa Koordinatzeko Batzordeari jakinaraztea.
- 9.- MUko DOCENTIA Koordinazio Batzordeak DOCENTIA ebaluazio-txosten instituzionala onartu eta egitea.

### 6.3. EBALUAZIO-SISTEMA

Departamentuko (edo baliokideko) koordinatzaileak eta dagokion PIlak kasuan kasuko ebaluazio-aldia (bosturtekoa, baina ez nahitaez urte jarraituak) eta ebaluazioan sartuko diren irakasgaiak adostuko dituzte. Emandako irakasgaietako bat ebaluaziotik kanpo uztea erabakiz gero, erabakia hartzeko arrazoiak justifikatu egin beharko dira.

Honako balio kualitatibo eta kuantitatibo hauek erabiliko dira dimentsio, elementu eta azpi-elementu guztiak ebaluatzeko: Ez dago ebidentziarik (0); Hobetu egin daiteke (1); Ondo (2); Nabarmen, Oso ondo (3); Bikain (4).

I. ERANSKINeko errubrikaren arabera egingo da ebaluazioa.

#### 6.3.1. Ebaluazio positiboa lortzea

Honako irizpide hauek erabiliko dira azpielementuak, elementuak eta dimentsioak ebaluatzeko:

Dimensión DOCENTIA	Elementos	Sub-elementos
TRABAJO EN EQUIPO Y LIDERAZGO (Max. 10 puntos)	1. Participación, liderazgo de equipos y motivación de las personas	1.1 Participación en trabajo en equipo 1.2. Liderazgo de equipos
PLANIFICACIÓN Y GESTIÓN (Max. 10 puntos)	2. Planificación de la enseñanza y del aprendizaje y coordinación docente	2.1. Planificar y Organizar las actividades de aprendizaje en relación a las competencias técnicas y transversales previstas y participar en la gestión docente 3.1. Orientación 3seguimiento y tutorización de los estudiantes
DESARROLLO DE LA ENSEÑANZA (Min. 20 – Max. 50 puntos)	3. Desarrollo de la enseñanza y evaluación del aprendizaje	3.2. Desarrollo de las actividades de enseñanza y aprendizaje, y adecuación de los criterios de evaluación al aprendizaje
RESULTADOS DEL APRENDIZAJE (Min. 10 – Max. 20 puntos)	4. Resultados en términos de objetivos formativos	4.1. Satisfacción de los estudiantes con la formación recibida 4.2. Consecución de los objetivos formativos
MEJORA DOCENTE E INNOVACIÓN (Max. 10 puntos)	5. Revisión y mejora de la actividad docente: formación e innovación	5.1. Revisión y mejora docente y actividades de formación e innovación pedagógica desarrolladas 5.2. Participación en proyectos de innovación o estratégicos

Ebaluazio positiboa lortzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Dimentsio hauek gainditzea:

3.- Irakaskuntzaren garapena eta ikaskuntzaren ebaluazioa eta 4.- Emaitzak prestakuntza-helburuen arabera.

b) Gutxienez 60 puntu lortzea dimentsio guztien artean.

### **6.3.2. Azken txostena**

Eraitza adierazterakoan, ebaluazioa ALDEKOA edo AURKAKOA izan den zehaztuko da. Ebaluazio positiboa lortuz gero, MUK DOCENTIA BOSTURTEKOA egiaztatuko du. Ebaluazioa AURKAKOA bada, berriz, irakasleak hurrengo deialdian aurkezteko aukera izango du.

Irakaslea ebaluatzeko ardura duen batzordeak ebaluazioaren emaitzen banakako txostena egingo du, elementu eta azpielementu bakoitzean erabilitako informazio-iturriak eta balorazio-irizpideak kontuan hartuta.

Txosten horri hobetzeko argibideak, gomendioak eta proposamenak erantsiko zaizkio, irakaskuntza-eta ebaluazio-ziklo berri baten abiapuntutzat erabiltzeko.

Irakaslearentzako DOCENTIA programaren ebaluazio-txostenaren eredu V. eranskinean dago jasota.

### **6.3.3. Irakaslearen ebaluazioaren emaitza jakinaraztea**

Irakaslearen ebaluazioaren emaitzak jakinarazteko, alde batetik, Kontseilu Errektoreak jardueraren ebaluazioari buruzko jakinarazpen administratiboa egingo du, eta, bestetik, aurrekoa osatzeko, departamentuko arduradunak azken ebaluazio-txostena emango dio irakasleari, ebaluazioaren funtsak aurrez aurre adierazteko irakasle bakoitzarekin egingo duen bileran.

Fakultate bakoitzeko arduradun akademikoak Koordinazio Talde Nagusiko/Zuzendaritza Kontseiluko kideak dira, eta, beraz, irakasle guztien ebaluazioen hartzaile zuzenak dira.

### **6.3.4. Erreklamazioak ebaztea**

Irakasleak, egoki baderitzo, errekurtsioa edo erreklamazioa aurkeztu ahal izango du, Irakaslearen Ebaluazioaren aurkako Erreklamazio Eskara egiteko VI. Eranskinean dagoen ereduaren arabera.

### **6.3.5. Ebaluazioaren emaitza globalen txostena**

Lau Ikastetxeetako jarduera-ebaluazioak amaitutakoan, DPKBk txosten instituzional bat egingo du, honako atal hauekin:

- o Ebaluazio-emaitza orokorrak:
  - Balorazioen batezbestekoa, elementuaren eta titulazioaren arabera (irakasle guztiena).
  - Balorazioen batezbestekoa, elementuaren eta ikastetxearen arabera (irakasle guztiena).
  - Balorazioen batezbestekoa, elementuaren arabera (irakasle guztiena).
- o Berrikuspena eta hobekuntza:
  - Prozesuaren metaebaluazioa, indarrak, hobetzeko aukerak eta ikastetxe bakoitzean identifikatu eta abian jarritako ekintzak.

### 6.3.6. Irakaskuntza-ebaluazioaren ondoriozko ekintzen jarraipena

Irakaskuntza-ebaluazioen ondoriozko ekintzen jarraipena urteko koebaluazioaren barruan jasotzen da. Irakasleak eta departamentuko arduradunak egite dute koebaluazioa, eta lanbide-garapenera eta -orientaziora bideratuta dago.

## 7. EBALUAZIO-PROZESUA BERRIKUSI ETA HOBETZEA

MUko jarduera guztiak, irakaskuntza-jarduera barne, etengabeko hobekuntza-zikloaren menpe daude, kudeaketaren emaitza neurtu, aztertu eta hobetzeko asmoz. Zeregin hori **MUP00.- Emaitzak aztertu eta hobetzeko** prozesuaren bidez egiten da.

Etengabeko hobekuntza-zikloan burutzen diren berrikuspen guztietatik, ziklo bakoitzak berrikusteko esparru jakin bat finkatzen du irakaskuntza-jarduera ebaluatzeari dagokionez:

- o Etengabeko hobekuntzaren baitako **lau urtean behingo berrikusketan**, besteak beste PIIen eta AZLen politika eta helburuak berrikusten dira.
- o Etengabeko hobekuntzaren baitako **urteko berrikusketan**, besteak beste **MUP04.- Langileen prestakuntza, garapen eta ebaluaziorako** prozesua berrikusten da, hobetzeko proposamenak identifikatze aldera; eta, horretaz gain, aurreikusitako helburuen betetze-mailari buruzko deskargu-txostena egiten da. Berrikusketa horrek emaitzak aztertu eta hobetzeko prozesurako informazioa dakar, eta, gainera, interes-taldeei/bezeroei komunikatzeko bidea ere bada, «Kontuak ematea» deritzonaren bidez.

Arrasate, 2020ko otsailaren 19a.